

**Programaren datu orokorrak**

<b>Departamentua:</b>	90 - ADINBERRI
<b>Atala:</b>	9001 - ADINBERRI
<b>Programa:</b>	010 - Adinberri Fundazioa
<b>Funtzionala:</b>	463 - Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Gipuzkoaren berrikuntza-ahalmena maximizatzea zahartze osasungarriaren alde; kontuan hartuta interes talde nagusien egoerak eta premiak, eta arreta xede komun bat betetzera bideratuz, hau da, bizitza osasungarria luzatzera. Horretarako, hiru helburu hartu dira oinarritzat (Triple Win for Europe):

- Herritarren osasuna eta bizi kalitatea hobetzea, arreta berezia jarrita adineko pertsonetan;
- Asistentzia eta osasun sistemaren zaintza zerbitzuen bikaintasuna eta jasangarritasuna epe luzera lortzeko ahaleginean laguntzea;
- Adineko pertsonen lotutako industriaren lehiakortasuna hobetzea, merkatuan hedatuko diren produktu eta zerbitzu berriak erabilia.

**Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:**

Herrialde aurreratuenetan izaten ari den biztanlegoaren zahartze azkarraren ondorioz gaur egungo paradigmatik aldatzen ari dira, gizarte konfigurazioari, garapen ekonomikoari eta hazkunde iraunkorrari dagokienez. 2017. urtean, Gipuzkoako biztanlegoaren (713.000) %35a 55 urtetik gorakoa zen, 250.000 pertsona inguru. 2031. urterako %46,5 izatea espero da, hau da, 343.495 pertsona. Eta %27,1 65 urtetik gora izatea espero da, eta %5ak 80 urte baino gehiago izatea. Hala, 80 urtetik gorako pertsonak gaur egun 50.000 izatetik 2031n 70.000 izatera igaroko direla aurreikusten da. Ehun urtetik gorako pertsonen kasuan, biztanleria laukoiztu egingo litzateke. 2019an, emakumeen bizi-itxaropena 87 urtekoa zen; gizonen kasuan, aldiz, 81 urtekoa. Hala ere, desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenaren ehuneko handiagoa da gizonezkoetan.

**Behararen eboluzioa:**

Nahiz eta pertsona gehienek bere zahartzarua modu autonomoan biziko duten, funtzio eta harremani dagokienez, biztanlegoa zahartzen doanez, mendekotasuna izango duten pertsona kopurua nabarmenki haziko da, gaur egungo 29.000 pertsonatik 36.000 ra pasako gara 2031ean. Hazkunde honek lehen mailako erronka bat dakar berarekin, bai asistentzia ikuspegitik (arretaren kalitatea hobetzea) bai ikuspegi sozialetik (egitura sozial eta ekonomikoak aldaketa demografikora eta zahartzearen erronkara egokitzea) eta baita aukera moduan ere ikuspegi ekonomikotik.

**Nori zuzendua:**

Gizartea, ADINBERRko ekimenaren azken hartzailea izanik:

- Aktiboa / hauskorra / menpekoa
- Zaintzaile eta profesionalak
- Komunitateak eta erabiltzaileen elkarteak

- > Osasun sistemaren agenteak
- > Hirugarren sektoreko agenteak
- > I + G + b agenteak
- > Agenteak / prestakuntza
- > Herri Administrazioak
- > Enpresak eta enpresen elkarteak

**Programaren estrategia.****1. Baliabideak (inputak):**

- Pertsonala
- Informazio prozesuetarako ekipamendua.
- Bulego materiala
- Hornidurak
- Komunikazioak. (+ WEB)
- Profesionalek edo enpresa espezializatuek egindako lanak

## 2. Garatu beharreko

- Ezagutza, ikerketa eta esperimentazioa sorkuntza (pilotatzeak, entsegu klinikoak, etab.)
- Jakintzaren transferentzia, komunikazioa eta sozializazioa eta produktu eta zerbitzu berrien hedapena
- Enpresen hazkuntza eta garapenari laguntza
- Eskariaren sustapena

## 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Balio-proposamena bere Talde Interesdunei (55 + eko taldea eta bere ingurunea, gizarte-osasun sistema eta ingurune ekonomikoa)

- Ekosistemen sorkuntza eta garapeneko ibilbideak,
- Prestakuntza ibilbideak.
- Berrikuntza ibilbideak.
- Produktuak eta zerbitzuak garatzeko ibilbideak.

### Programaren arau esparrua:

- 9/2016 LEGEA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.
- 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko erregelamendua, 24/2008 Foru Dekretuaz, apirilaren 29koaz, onartutakoa
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen, martxoaren 27ko, 4/2007 Foru Araua


## 2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

**Urteko helburua:** ADINBERRI bultzatzea, Gipuzkoako zahartze osasuntsu baten aldeko erreferentziatzko estrategia berri gisa.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2020-ko Aurreikuspena	2020-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Adinberriko Jardueretan parte hartu duten edo ari diren eragileak	Kopurua	190,00	230,00	522,00	260,00
AdinBerritik lagundutako I+G+b Proiektu kopurua (Bottom up eta Top Down)	Kopurua	31,00	44,00	48,00	85,00
ADINBERRI erreferentziatzko zentroa abiaraztea 2023an	Bai/Ez	Ez	Ez	Ez	Bai

### Joera

Adinberriko Jardueretan parte hartu duten edo ari diren eragileak – Kopurua



AdinBerritik lagundutako I+G+b Proiektu kopurua (Bottom up eta Top Down) – Kopurua



## Memoria

2020ko ekitaldian, Estrategia asko hedatu eta aurreratu da, 6 erronka estrategikori eta 4 proiektu eragileri lehentasuna emanaz eta 44 proiektu esperimentalen kudeaketa eta jarraipena eginez. Aurreko ekitaldian entzute aktiboko prozesua burutu eta ekosistemaren behar eta ekarpen guztiak bildu ondoren, hausnarketa estrategikoko prozesu bat egin dugu Adinberri Fundazioaren Balio Proposamena definitzeko, eta, prozesu horretan, kanpo- eta barne-ikuspegia txertatu ditugu. Ekosistemako eragileen artean Adinberri sendotzeko urrats garrantzitsua egin da.

Fundazioaren beraren iraunkortasunari dagokionez, Fundazioak konfinamendu-aldian sustatu duen telebista-programarekin lotutako lehen babesletzak sartu dira, baina Fundazioaren iraunkortasunari eta finantza-autonomiari lagunduko dioten kanpo-finantzaketarako bide posibleei buruzko hausnarketa sakona egiteke dago.

Erreferentzia-zentroan jarriko diren espazioen edukien diseinuari dagokionez, 2019an zehaztutakoez gain, gutxi aurreratu ahal izan da, pandemia dela eta, eraikuntzaren hasieran atzerapenagatik.

Ekitaldi honetan, nazioarteko sareetako parte hartzean zertxobait gehiago aurreratu da, ITHACA, Gatekeeper, Europolo edo Silver Economy bezalako proiektu traktoreen bidez. Hala ere, pandemia-urtea izanik, ezin izan dugu bidaiatu, ezta aliantza sakonagorik egin ere.

Esperimentu-proiektuen orientazioan, jarraipenean, laguntzan eta inpaktu-ebaluazioan irmo aurreratu da,

## Memoria

Adinberri Radar metodologia propioa ezarri. Hala ere, ez du astirik eman Adinberri Zigilua ziurtagiri-metodologia sortzeko, produktu/zerbitzu horiek homologatu eta ziurtatuko dituena. Gainera, uste dugu oso gai garrantzitsua dela, eta ekosisteman heldutasun- eta pedagogia-denbora bat behar duela.

Prestakuntza- eta gaikuntza-ibilbideari dagokionez, ADINPREST trakzio-proiektua jarri da martxan. Zaintzen sektorea profesionalizatu eta kualifikatzea du helburu, kalitatezko enplegua sustatzeko eta arreta- eta zaintza-zerbitzua hobetzeko. Proiektu honek ekosistemaren 7 ekimen biltzen ditu, balio-katearen faseei laguntzen dietenak eta Elkarrekin Lanean estrategiarekin bat egiten dutenak. Estrategia hori bazterketa-arriskuan dagoen kolektiboarentzako enplegarritasun-estrategia da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatua. Gainera, Adinprest proiektua Eusko Jaurlaritzaren zaintzen arloko ZainLab ekimenaren jardueraren ildo bat da.

Adinberri 2020 Programarako laguntzen deialdia kudeatu da, Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurunearen Sailarekin batera. Deialdia Silver Economy-ra bideratu da, eta haren onuradunak izan dira ekosistemako eragileek (egoitza-zentroak, teknologia-oinarriko enpresak, etab.) sustatutako 13 enpresa-proiektu. ).

Adimen Aurreratuko Sistema (behatoki prospektiboa) abian jartzea, zahartzearekin lotutako erronkei aurrea hartzeko. Etorkizuneko joerak eta agertokiak identifikatzeko gai den tresna, pentsamendu eta esku-hartze eta ekintza estrategiko eta berritzaileen oinarri informatuak eskaintzeko denbora irabaziz. Gipuzkoan, Euskadin eta gure inguruko gizarteetan zahartzeari buruz INFORMATZEKO eta EZAGUTZEKO plataforma irekia. Beste informazio- eta ezagutza-iturri batzuekin eta Gipuzkoako zahartze osasungarriaren inguruko beste erakunde batzuekin ELKARREKINTZARAKO eta LANKIDETZARAKO gunea. Eragile publiko eta pribatuei oinarri informatuak eskaintzea ahalbidetzen duten ETORKIZUNeko JOERAK eta AGERTOKIAK identifikatzeko tresna.

Ekintzailtza eta barne-ekintzailtza sustatzeko lan-ildoari dagokionez, hainbat proiekturi lagundu diegu, eta azken erabiltzaileek eta esparruko profesionalak balioztatzea eta testatzea sustatu dugu. Oinarri teknologikoa dutenak BIC Gipuzkoarekin elkarlanean aritu dira, BIC eta Adinberriren arteko harremana sendotuz, hasieratik lanean ari baitira.

Gainera, Adinberri aurrera egin du Adinberri plataformaren garapenean, bai modulu korporatiboan bai CRMn. Azken hori ekosistemaren informazioa komunitate birtualaren ikuspegitik kudeatzera bideratuta dago, eta helburua eragileen eta proiektuen arteko lotura eta elkarreragina sustatzea da.

Zahartzearen inguruko ekonomia eta produktu eta zerbitzu berriak sustatzeko helburuaren inguruan, Silver Economy izenekoa, programaren 2. fasea amaitu da. Prozesu bizia eta sakona izan da, 8 hilabetez egina, eta Gipuzkoan Silver Economyaren Esparru Estrategikoa definitzen lagundu du, 5 espezializazio-nitxo lehenetsiz. Bere jarduketaren plana 2021. ekitaldian hasiko da.

## Helburuari lotutako jarduketaren ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketaren ildoak:

ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.



% 50,00



% 50,00

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketaren ildoak, guztira	1.298.724,00	795.767,95		

	<b>Hasierako aurrekontua</b>	<b>Gauzatzea</b>	<b>Sarrera lotua</b>	<b>Aurreratze gradua</b>
<b>1.1 Ekintza</b> Berrikuntza Agenda Estrategikoaren eguneratzea	184.250,06	181.010,02		100,00
<b>1.2 Ekintza</b> Adinberri Erreferentzi Zentruaren kokapen ezberdinen eduki eta erabilera	60.845,42	68.256,75		40,00
<b>1.3 Ekintza</b> Nazioarteko Sarearen sorkuntza	85.174,38	82.154,69		30,00
<b>1.4 Ekintza</b> "Adinberri Zigilua"ren ezarpena	89.009,90			
<b>1.5 Ekintza</b> Formakuntza Beharren Diagnostikoaren Ekintza Planaren ezarpena	85.427,66	96.146,24		100,00
<b>1.6 Ekintza</b> Dirulaguntza Deialdiaren kudeaketa	435.921,10	77.333,48		100,00
<b>1.7 Ekintza</b> Behatokiaren sorkuntza	289.167,82	214.039,92		100,00
<b>1.8 Ekintza</b> Ekintzailetasuna eta Barne- ekintzailetasunaren sustapena	68.927,66	76.826,85		100,00

**GENERO BERDINTASUNEN PLANA**

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Adineko pertsonak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren eboluzioa:**

Alderdi horretan beharra ez da aldatu, eta oraindik ere beharrezkoa da horri aurre egitea. Zahartzearen esparrua, zalantzarik gabe, genero-ikuspegiaren arabera da, Gipuzkoako emakumeen bizi-itxaropenetik hasita; itxaropen hori 87 urtekoa da eta gizonena 81. Hala ere, ezintasunik gabeko bizitzarako itxaropena txikiagoa da emakumeengan.

Generoaz gain, beste faktore batzuk ere garrantzitsuak dira bizi-kalitatean, zahartu ahala: estatus soziala, hezkuntza-maila, bizi garen eremua/auzoa/eskualdea, estresa edo lan-baldintzak, besteak beste.

Bestalde, azken hamarkadetan emakumeak lan-merkatuan gehiago sartu izanak paradigma-aldaketa dakar zainketa-sisteman, urte hauetan guztietan emakumea izan baita zainzaile nagusia, bai adinekoena, bai seme-alabena. Familia-egiturak aldatu egin dira, eta gaur egun familiak ez dira hain ugariak, familia bakarreko familiak nabarmen gehituz.

Gaur egun, postu hori pertsona migratzaileek betetzen dute, gehienak emakumeak eta baldintza eskasetan; beraz, zainketen arloan ezinbestekoa izango da gai horri ekitea.

**Kuantifikazioa:** 1.880,77 ( % 0,24 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Or 3. Emakumeen ahalduntzea lagundu.	( % 100,00 )	Or 3.13.- Emakumeen kooperatibak eratzeko laguntza eta aholkularitza zerbitzuak martxan jartzea, bereziki feminizatutako lan-arloetan eta landa eremuan arreta jarritz.	100,00	<p>Laguntza jasotzen duten Emakumeen Etxe eta jabeakuntza eskolen kopurua.</p> <p>GUNEAn, gizarte solasaldirako organoan, parte hartzen duten Gipuzkoako elkarte feminista eta emakumeen elkarte kopurua.</p> <p>Kooperatibismoa, ekintzailatza eta auto-enplegua sustatzeko programen genero-inpaktua (parte hartzearen gaineko sexuaren arabera datuak)</p>

**HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA**
**Beharraren eboluzioa:**



Euskararen erabilera bultzatzen jarraitu behar dugu zahartze osasungarriarekin zerikusia duten esparruetan, arreta berezia jarri zainketen arloan, eta eguneroko bizitzan autonomia babesteko laguntza behar duten erabiltzaile guztiei nahi duten hizkuntzan jaso ahal izatea bermatu behar diegu.

Pandemia-urte honetan, ADINBERRI EITBn ariketa fisikoari, ongizate emozionalari eta garapen kognitiboari buruzko programa bezalako jarduerak egiten aritu da, eta euskaraz eman da.

**Kuantifikazioa:** 4.530,40 ( % 0,57 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	( % 33,33 )	Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da	100,00
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	( % 33,33 )	Herritar guztiei elkartarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko aukera emango zaie.	100,00
5.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu- hornitzaileak, etab.	( % 33,33 )	5.2.1. Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	100,00

## Programari lotutako GJH zerrenda

GJH		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 <p>3-OSASUNA ETA ONGIZATEA</p> <p>OSASUNA ETA ONGIZATEA</p>	<p>3-OSASUNA ETA ONGIZATEA</p> <p>Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.</p>	649.362,00	
 <p>9-INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</p> <p>INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</p>	<p>9-INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</p> <p>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.</p>	649.362,00	
<b>Guztira</b>		<b>1.298.724,00</b>	



<b>PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA</b>			
<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Gauzatzea Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	358.224,00	293.635,96	81,97
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	331.500,00	336.139,14	101,40
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	350.000,00		
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>1.039.724,00</b>	<b>629.775,10</b>	<b>60,57</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	259.000,00	165.992,90	64,09
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>259.000,00</b>	<b>165.992,90</b>	<b>64,09</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>			
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.298.724,00</b>	<b>795.768,00</b>	<b>61,27</b>

**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	293.635,96			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	336.139,13			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira</b> <b>Total operaciones corrientes</b>	<b>629.775,09</b>			
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	165.992,86			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones de capital</b>	<b>165.992,86</b>			
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>795.767,95</b>			
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>61,27</b>			

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA				
Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.039.724,00	629.775,00	60,57	
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>1.039.724,00</b>	<b>629.775,00</b>	<b>60,57</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	259.000,00	259.000,00	100,00	
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>259.000,00</b>	<b>259.000,00</b>	<b>100,00</b>	
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.298.724,00</b>	<b>888.775,00</b>	<b>68,43</b>	